

Mr. d'Abbadie eta Arana Jose Inazio

(Mr. d'Abbadie and Arana Jose Inazio)

Altuna, Patxi*

Deustuko Unibertsitatea. EUTG

Apdo. 1359

20080 Donostia

* Euskaltzain osoa

José Inazio jesuita azkoitiarra, José Antonio Arana Martijaren ustez "XIX. mendeko bibliograforik handienetakoa" izana, Antoine d'Abbadieren adiskide leiala izan zen ia 25 urtetan zehar. Hark honi ia 100 eskutitz egin zizkion eta honek hari 60 edo. Horrez gain elkar ere bisitatu zuten hiruzpalau aldiz. Karten edukia ez da inondik agertzen nik erabili dudan Aranaren EGUNARIA luzean, hor soilik esaten baitu hartu zuela edo idatzi diola, eta kito. D'Abbadiarekin gutuneria sarritakoena izan zuena bera izan zela ez da dudarik.

Giltz-Hitzak: 30 urtetako adiskidetasuna. Gutuneria ugaria. Elkarri bisita batzuk. Elkarri liburuak igorri.

José Ignacio, jesuita natural de Azkoitia, "uno de los mayores bibliógrafos del siglo XIX" en opinión de José Antonio Arana Martija, fue un fiel amigo de Antoine d'Abbadie a lo largo de casi 25 años. Escribió casi 100 cartas a este último y éste a su vez alrededor de 60. Además llegaron a entrevistarse tres o cuatro veces. En el extenso EGUNARIA de Arana que he utilizado no aparece en ningún lugar el contenido de dicha correspondencia, puesto que únicamente se comenta que ha recibido carta o que la ha escrito, nada más. Sin duda fue uno de los más habituales correspondales de D'Abbadie.

Palabras Clave: 30 años de amistad. Abundante correspondencia. Algunas visitas mutuas. Envío de libros entre ambos.

José Ignacio, jésuite originaire de Azkoitia, "l'un des plus grands bibliographes du XIXème siècle" selon José Antonio Arana Martija, fut un fidèle ami d'Antoine d'Abbadie pendant près de 25 ans. Il envoya environ 100 lettres à ce dernier et celui-ci lui en fit parvenir environ 60. En plus, ils se rencontrèrent trois ou quatre fois. Le contenu de cette correspondance n'apparaît nulle part dans l'EGUNARIA de Arana que j'ai utilisé, car on ne fait que mentionner qu'il a reçu ou qu'il a envoyé une lettre, sans plus. Il fut sans aucun doute l'un des plus assidus correspondants de D'Abbadie.

Mots Clés: 30 ans d'amitié. Abondante correspondance. Quelques visites réciproques. Echange mutuel de livres.

Joan zen abenduan ospatu zuen Euskaltzaindiak aita Jose Inazio Arana jesuita hil zeneko mendeurrena Azkoitian, non jaio baitzen, eta Oñan hil (1838-1896). Nahiz Jose Antonio Arana Martijak han eginiko hitzaldian esan zuen, "XIX. mendeko bibliograforik handienetari-koa" izan zela eta nahiz Aita Villasantek bere *Historia de la Literatura Vasca*-n idatzi zuen, batetik "uno de los vascófilos más sabios e ilustres que florecieron hacia 1880"¹, bestetik "de los más profundos conocedores de la literatura y bibliografía vascas"² izan zela, halere lotsaz aitortu behar dugu, d'Abbadie jaunak letra gizonen artean izan zuen bere eskutitzen erantzulerik zintzoen hura orduarte arras gutxi ezaguna zela, eta orain ere ez asko. Antoine d'Abbadieri orain egiten zaion omenaldi hau izan daiteke parada polita Aranari ere trabeska bultzalditxo bat emateko, bortitza izan baitzen bien arteko atxikitasuna euskararen aldeko lanean, orain ikusiko dugun bezala.

Hastetik beretik esan behar dugu, izan ere, joan zen mendean eta euskal letren munduan doi-doi izango zituela bestek Aranak bezain harreman estuak eta sarritakoak, hark adina euskaltzale, euskalari, euskal idazle eta, erabat esateko, euskal letretako gizonekin. Ezagunenak bakarrik aipatzeko, hor ditugu iparraldean Bonaparte, Georges Phillips, Duvoisin, Intxauspe, Vinson, Arbelbide eta Lakoizketa; eta hegoaldean Lardizabal, Soroa, Arzak, Azkue, Urruzuno, Karmelo Etxegaray, Txomin Agirre, Manterola, Antia, Sabino Arana, Arrese Beitia, Campion, Eleizalde, eta abar. Hizlari eta sermoigile sonatuenak ere ez baztertzeko, Pagadizabal, Orkaiztegi, Makazaga eta Pradera. Aipa ditzagun azkenik inprimatzaile batzuk, beti zerbait argitaratzen eta probak zuzentzen ari zela erakusten baitigute: Azpeitiko Martinez, Tolosako Eusebio Lopez eta Mugerza, Bartzelonako Muns, Bilboko Larunbe eta Delmas eta Madrileko Fortanet, gehiagoren artean.

Baina inorekin ez zituen izan d'Abbadie jaunarekin bezain harreman ertsiak eta maizkoak. Hauek, guk dakigula, hogeita hiru urtetan barrena luzatu ziren, 1868an hasi eta 1891 arte, baina seguruenik bost urte gehiago ere bai, gero esango dugun bezala.

* * *

Dena Loiolan hasi zen, hara igorri baitzuten Arana bere Nagusiek atsedean hartzera eta sendatzera, Leon-en Filosofia ikasten ari zela buruko bigarren odol-kolpeak erauntsi zionean. Han zegoela 1868ko irailaren 3an honako hau idatzi zuen Aranak bere EGUNARIA-n: "Llegan Mr. Antoine d'Abbadie (membre de l'Institut) y el P. Perry y el Hno. Sidgreaves escolar inglés, para hacer observaciones magnéticas, que las hacen en la huerta". Eta biharamunean beste honako hau: "Marchan los Sres. precedentes: apuntes de Mr. d'Abbadie sobre el vascuence". Ez dakigu zer zirriborro izango ziren, baina bai handik bost hilabetera d'Abbadiek igorri zizkiola "carta y cuadernillo". Hori izan zen bizitzan zehar elkarri egin zioten karta-truke ugariaren lehenbiziko alea, zeini Aranak hamar egunen buruan erantzun baitzion.

Parisko liburutegi nazionaletik eskuratu eta, bada Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue liburutegian eskutitz horietako askoren kopia edo mikrofilma. Liburutegi honetako arduradunari galdegin nion esango al zidan, mesedez, ea zenbaten kopiak zituzten danera batarenak nahiz bestearenak, eta erantzun zidaten d'Abbadiek Aranari idatzietatik bederatzirenak zituztela eta Aranak d'Abbadieri eginetatik hirurogeita bederatzirenak. Aranak eginen kopurua

1. VILLASANTE, Luis, *Historia de la Literatura Vasca*, 1979, 283. or.

2. Idem, hor berean, 284. Or.

egiazkoari aski hurbiltzen zaio, egia esan; baina nik, Aranak berak EGUNARIA-n aipatuak kontatuz gero, kopuru hori biribilduko nuke eta ehunean goiti-beheiti ezarriko.

Aldiz Aranak bere EGUNARIA-n egunero ematen baitu, ez bakarrik edonori idazten dionaren, bai eta hartzen dituen eskutitz guztien berri ere, esan dezaket lehen kopurua, d'Abbadiek Aranari egin kartena, alegia, asko gehitu behar dela eta ia zazpitan biderkatu; hau da, Azkue liburutegiko bederatzia bakarrik ez, hirurogei idatzi zizkiola, gutxi gorabehera. Beraz berrogeita hamar-edo falta dira.

Orain esango dugunak esplikatzan du hori. Galdegin nien halaber Azkue liburutegikoei ea han zeuzkaten elkarri eginiko eskutitzetatik zein zen bakoitzaren azkena, hala d'Abbadierena nola Aranarena. D'Abbadierena 1876ko maiatzaren 31koa zela erantzun zidaten eta Aranarena 1887ko uztailaren 25ekoa. Hamaika urteko aldea.

Baina EGUNARIA eskuetan hartuz gero, agerian gelditzen da bestela ere aise pentsa zitekeena, alegia, ez ditugula Bilbon haiek elkarri egin eskutitz guztiak. Konkretuki batetik d'Abbadie ez zela egon hamaika urte Aranaren eskutitzei erantzun gabe; aitzitik, beste hamalau urtez jarraitu zitzaiola eskutitzak idazten; bestetik Aranaren azken data, 1887 omen delako horretaz, gero ere hiru urtez segitu zutela elkarri idazten eta, jakina, d'Abbadieren azken hamalau urteetako eta Aranaren azken hiru urteetako, 1888., 1889., 1891. etako, karta bakar bat ere ez dugula Azkue liburutegian.

* * *

Zeren hemen ohar bat egin behar da: 1890. urtean ez zioten elkarri batere eskutitzik idatzi, ez dakigu zergatik –haren bitzta ikertu dutenek jakingo dute, agian–, eta urtebeteko isiltasun horren ondoren d'Abbadiek hartu zion aurrea Aranari, 1891ko martxoaren 20an “txartel edo tarjeta hilberriko sentieraz” igorririk. Hogei egun lehenago hil zitzaion Aranari, izan ere, Antonio Maria anaia maitea. Hilberri horren doluminari esker hartu zuten berriz albainua eta 1891ko urte horretan osoan hamazazpi eskutitz elkarri idatzi.

Azken lau urteetan, bada, bat kenduta, ohiko tentuan aritu zitzaizkion elkarri eskutitzak egiten, esan bezala. Areago, elkarri eskutitz gehiena egin zioten urtea 1891. izan zen, hamazazpi danera, nahiz martxo arte eten ez zuen d'Abbadiek urtebete handiko isiltasuna. Arrazoia bistan da: uda hartan lurretako “Lore Jokoak” izan ziren. Honela mintzo da egun horietan EGUNARIA: “Yurretako abadeakin, Mr. d'Abbadieren karta gainean”; “Mr. d'Abbadieren karta Paristik Yurretako euskara festen gainean”; “D. Julian Unamunzaga alkattea d'Abbadieren festa gainean agorraren 30erako”; “On Balbino (Garitaonaindia)ren karta; Yurretari 1.000 fr. Mr. d'Abbadiek bialdu dizkala”. Eta Lore-Jokoak lurretan ospatu ondoren, Aranak EL BASKO izparringiko zatiak igortzen dizkio ondoko egunetan d'Abbadieri.

Eta ia Lore Joko horiekin batera, 1891n, amaitzen da EGUNARIA, gezurra badirudi ere, eta egun horietakoxeak dira halaber elkarri egin zizkiotela guk dakigun azken eskutitzak, agian ez guztiak, orain esango dudanez. Zeren ez zaizue ahantzi behar Arana 1896an hil zela, d'Abbadie jauna urtebete bat geroago, eta ziur-ziur dakigula hark EGUNARIA idazten jarraitu zuela, nolazbait esateko, azken arnasa eman zuen arte.

Baina damurik guri EGUNARIA murriztua eta trenkatua, azken bost urteetako orri-sorta gabe, 1891n amaitzen dela, heldu zaigu; halaz eta guztiz ere merezi onez pentsa dezakegula uste dugu elkarri eskutitzak idazten jarraitu zutela azkeneko bost urte haietan ere. Zenbat? Azkenak noiz? Ez jakin. Baina EGUNARIA lekuko dugula esan dezakegu Aranak 1891ko urriaren 6an idatzi ziola gure jakinean azkena dena d'Abbadieri, nondik eta Oñako desterru-

tik, eta d'Abbadie jaunak hilabete eta erdi geroago, azaroaren 24an, berea, zein Aranek hitz hauekin ezartzen baitu bere EGUNARIAN-n: "Mr. Ant. d'Abbadieren karta Hendaiatik Durangoko eta Loiolako gauzen gainean".

* * *

Eman ditudan kopuruak ez dira arras zehatzak eta ezin izan daitezke. Zenbait alditan ezin jakin daitekeelako elkarri igortzen dioten pardel edo sortatxoan eskutitza ere bidaltzen duten ala ez. Hala egun batean irakurtzen dugu: "liburutxo d'Abbadieri"; bestean "d'Abbadieri papertxoak" –badakikezue bere EGUNARIA urte batzuetan gazteleiaz eta bes-teetan euskaraz idatzi zuela– eta ezin jakin liburutxo edo papertxoekin batean kartatxo ere idatzi zion. Berebat d'Abbadieri dihoakionez, behin "Abbadie manda Annuaire", dio Aranek; gero "Iléganme Euskarazko hitz-jostaldiak 1881 de San Sebastián". Eskutitzaz gain ala esku-titzik gabe?

D'Abbadieren eskutitzak ez dira beti eskutitz soilak eta hutsak, dirua dakarkioite Aranari: "Carta de d'Abbadie con 50 fr.", batean; "Ayer carta de Ant. d'Abbadie con 40 fr.", bestean. Inoiz kutxa handixeak igortzen dizkio eta ez liburuz beteak: "Llega el Hno. Domingo Ermeta trayendo cartas y un cajón de instrumentos de d'Abbadie para el Gabinete", eta biharamu-nean Aranek ordaina: "Vase Ermeta con cartas y papeles para d'Abbadie"; eta Eguberri aurreko egun batean: "Carta a d'Abbadie y libro de S. Ignacio", eta, Antoine zeritzanez gero, gehiago gustatuko zitzaiona: "Carta a Mr. Antoine d'Abbadie con apuntes y versos de San Antonio". Beste batean, berriz, "Encargo de los tres tomos de cartas de San Ignacio para Mr. d'Abbadie". Baina d'Abbadiek ere xuhur eta zikoitzetik ez du deus ere eta "llegan once cajones de Física" aitortzen du Aranek.

* * *

Utz dezadan horretan, ez gehiegi luzatzeko, baina esanari beste puntu bat gehituz: elkarri mesedeak egin ez ezik, elkar bisitatzen ere zutela noizbehinka. Ikusi dugu nola elkar ezagutu zuten Loiolan. Ez dakigu elkarren berri zuten orduko eta d'Abbadie Loiolara Aranarekin egotera joan zen ala bestetara, eta gauzak hala suertatu ziren. Elkar ikusi zuten lehen aldia izan zen, baina ez azkena; ez eta gutxiago ere.

Handik urtebetera, hortxe-hortxe, Arana oraindik aita Landarekin Zarautzen bizi zela haur batzuei latina eta gramatika irakasten, etorri zen behin, 1869ko abuztuaren 8an, "al Château o casa de Mr. Antoine d'Abbadie; su hermoso edificio, posesión de su señora D^a Denis Virginie Vincente de Saint Bonet, gran pianista con una sola mano; sus aves, coco, águila, perros, criados. Observaciones astronómicas, literatura, inscripciones, biblioteca vas-congada; cuestiones". Agur egitean D'Abbadiek 5 fr. eman zizkion Aranari.

Sei urte igaro ziren 1875eko abenduaren 15ean hurrengo bisita egin zionerako. Orduko iada apaiz egina zen, nahiz ez berak nahi bezain agudo, buruko odol-kolpe bikoitzak utzi zizkion ondorenakgatik. Intxauspe kalonjearekin sartu-irten bat izan zen, ez baitu batere zertze-ladari azaltzen. Bi urte geroagokoan, 1877ko abuztuaren 16an, bai. Poyannen bizi zen eta udako opor-egunak Lapurdiko Getarian beste jesuita batzuekin ematen ari zela, esaten digu: "Tarde a Hendaia y Château de Zuberno"..." "Ida al Château por junto a Las Tumbas. Mr. Antoine d'Abbadie, su señora y el señor Laborda Nogues, de Vitoria". Bost egunen buruan dozena erdi bat lagun jesuita inguruan dituela, hara doa berriz ere: "A Hendaya y Château Abbadie con el P. Mintegiaga y otros. Familia Antoine Abbadie y señora; almuerzo... Pianista la Señora con el P. Alarcón, Cotanilla, Uriarte e yo; refresco".

Bi urte geroagokoa horien antzeko inguruneetan gertatu zen, berriz ere Getarian zegoe- la oporretan, 1879ko abuztuaren 12an. Honela dio: "Al Château de d'Abbadie Antoine desde el apeadero de Urruña, a pie, desde las 10,45 de la mañana por N. Aristegi (pitarra), Aurkiakoborda, Aitzabe... Llegada a las 12,45. Mr. Antoine d'Abbadie, Madame d'Abbadie, señor (exdiputado) Laborda Nogues; criados". Hori izan zen azkena, urte bereko Eguberrietan Urduñara igorri baitzuten Agintariek Arana eta ez gehiago iparraldera itzuli.

D'Abbadiek ere bere aldetik egin zion, Loiolakoaz gain, beste bisita bat 1875eko Gabon bezperan, Arana Baionan bizi zen garaian: "Visita de Mr. Ant. d'Abbadie, que viene en coche. En conversación desayuno; archivo, cartas de San Ignacio y cuaderno Carlos 7º, cartas de Motrico, astronomía. Con él en coche a Bayona". On da jakin dezazuen D'Abbadie jaunaz gain emazteak ere idatzi ziola kartatxoa behin, 1873ko urtarilaren hamaikan, Arana Urduñako kolejoan irakasle zela: "Carta de la Señora de Abbadie sobre el pintor Juan de Landaburu. Respuesta". Bertantxe erantzun ziola, alegia.

* * *

Eskutitzen edukari buruz ezer gutxi da EGUNARIA-ko aipamenek irakasten digutena, ia beti "Carta a" eta "Carta de" baizik ez baitigute esaten. Jakin-min berezia sortzen digun kartaz ere "urgente" omen delako, hau baizik ez digu kontatzen: "Carta de d'Abbadie urgente de 30 de agosto, y respondo dos líneas, y sobre viejo". Luzexeago bat bada, baina hor Arana bitarteko baizik ez da, eskutitza besterena baita. Ikus: "Carta extensa del P. Viñes del Observatorio de La Habana sobre el estado atmosférico según datos pedidos para Mr. Abbadie, para el paso de Venus ante el sol el 6 de diciembre de 1882". Beste bat korreetik heldu omen zaiona: "Mr. d'Abbadieren bi liburuxo: Exploration de l'Afrique, eta Sur quelques desiderata de l'Astronomie; horrekin batera Mr. d'Abbadieren eskutitza Paristik", dio.

Eskutitzetan elkarri zer kontatzen zioten jakiteko Azkue liburutegiko kartak onuragarria- goak izango dira, noski; nik, ordea, berandu eta epez kanpo ibili naizelako, ez dut astirik izan haiek irakurri eta aztertzeke. Egin dudantxoa irakurri dizuedana da.

P.D. Epe guziak ia igaroak direnean, hara non hartzen ditudan jesuiten Erromako Etxe Nagusitik igorriarik, aita Aranak azken bost urteetako Oñako desterrutik aita Jeneralari eginiko zortzi eskutitz luzeren fotokopiak. Horietako batean Mr. Antoine d'Abbadie jaunaren gorazarrea egiten dio eta on litzateke hitz horiek, ez baitira bi orrialde baizik, ezar litezen ene artikulutxoaren bukaeran. Honela dio 1893ko abuztuaren 14an Aita Luis Martin, jesuiten Jeneral izendatu berriari:

"Es el caso, que el anciano Conde Mr. Antoine d'Abbadie, Miembro de los más antiguos y beneméritos del Instituto de Francia, amigo y bienhechor de varios PP. de la Compañía desde hace más de treinta años y profesor gratuito de Astronomía con algunos misioneros de ella, al responder a una carta mía, en la que, además de darle noticia de los Tomos 5º y 6º de las *Cartas de San Ignacio*, que no los posee aún, le insinuaba yo que acaso este verano u otoño irían a París alguno que otro Padre español, para procurar instrumentos para un gabinete de Física, y que sus buenos consejos como de tan conocedor y experimentado en la materia, les podrían ser útiles, al responderme el 24 de Julio, concluye la carta de este modo: "J'ai dépensé temps et peines à enseigner aux missionnaires de votre Compagnie la manière de faire la carte d'une pays peu connu. La plupart n'ont pas profité de mes leçons, pour diverses raisons. Le seul dont j'aie été content est un novice breton, devenu prêtre depuis; c'est le P. Froc. J'ai même

donné de mes instruments á quelques uns qui n'en ont fait ensuit aucun usage. Dieu seul tiendra compté de mes intentions. Agrééz l'assurance de mes sentiments très distingués. Antoine d'Abbadie. Paris (rue du Bac, 120), 1893, Juillet, 24".

Eta honela jarraitzen da gero berriz aita Arana: "Descubro yo en lo transcrito, como creo lo verá también su Paternidad, algo de justo resentimiento de parte de aquel buen Señor, porque los de nuestra Compañía no han querido aprovechar de sus favores, lecciones e instrumentos dados gratis por él a algunos PP. y escolares nuestros. Sospecho también que esta su manifestación proceda de mi insinuación o como recomendación, para que favoreciera en sus compras de instrumentos este año en París, si fuesen a eso algunos de los Nuestros de la Provincia de Toledo. El R. P. Granero me habló aquí de aquel Señor el año pasado, y a mi R. P. Provincial pareció bien asimismo mi indicación o recomendación.

En vista de esto, su Paternidad verá "coram Domino" si convendrá, como lo hacía S. Ignacio con los bienhechores, dirigirle alguna cartita de atención y agradecimiento a tan benemérito y activo sabio católico, cofundador en unión con otro hermano suyo de las Misiones de Africa en tiempo del Papa Gregorio XIV.

Conocí yo a ese Señor poco antes de la Revolución Española del 68 en Loyola, a donde regaló entonces un pluviómetro y otro instrumento, y desde entonces con alguna interrupción de año o año y medio ha tenido correspondencia literaria conmigo; y él me puso asimismo después en ella con los tres sabios filólogos y bascófilos, el Príncipe Luis Luciano Bonaparte, el Capitán J. Duvoisin y el Canónigo Ex-Vicario General de Bayona l'Abbé Inchauspe, que nos dió a los PP. que estábamos allí en 1875 y antes, las licencias de confesar y predicar.

Al llamarme una vez de Guipúzcoa, donde estaba con el P. Landa, a Bayona mi muy amado P. Provincial R. Felipe Gomez, obtuvo de él ese Señor que de paso me detuviera con él un par de días, para hacerle en versos latinos y éuskaros tres o cuatro inscripciones para su grandioso y espléndido Château de Hendaya, que años después estuvieron también a verlo conmigo desde Guetary los PP. Villada, Alarcon y otros. Al fundar nosotros el Colegio de Orduña, él dió algunos instrumentos para el incipiente gabinete de Física. El me manda cada año el "Annuaire des Longitudes" y me ha ido mandando otros libros científicos y lingüísticos en diversos tiempos; y cualquiera obra importante de esa clase o bien relativo al país bascongado, de cuya existencia le haya yo dado noticia, procura adquirirla a toda costa para su biblioteca particular. La última adquirida el año pasado ha sido "La polígloa del Sr. Sardá en ocho lenguas. El liberalismo es pecado", edición monumental de Barcelona. Y baste con esto por lo que toca a ese buen Señor y venerable anciano bienechor nuestro".

Eta Arana jarraitzen da beste kontuak eta penak, bere Oñako egoerari zegozkionak, Erromako aita Jeneralari, orduko jesuita guzien Buruari, kontatzen.